



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

525. zkia.
XIII. urtea
2005eko apirilaren 15a

"Vaya Semanita"

Euskal labeldun umorea



AMAIA GORROTXATEGI

Aspaldi plazaratu zituen norbaitek tarte honetan, idatzi xume hauetako bat idazteko gai bila izan zituen buruhaustek. Hark gai garrantzitsuren bat aurkitu nahi zuen, honen inguruan jolasean arituz barrenak eskatzen dituen 1.000 karaktereak betetzeko.

Nik ere arazo berdinarekin egin dut topo gaur, gai polemikoetaz ezin mintzoko naiz tarte honetan (bestela amak errieta egingo dit) eta, bestalde, ez dut nire idatzia somnifero gisa erabiltzerik nahi!! Horrela burua astinduz, bizitzan garrantzitsuena garrantzitsua ez dena dela ondorioztatzeraz heldu naiz. Zerk ematen dio zentzua zure bizitzari, Ainho??

Nire mundua oso gauza txikiek mugitzen dutela konturatu naiz; eguzkiaren berotasuna aurpegian sentitzeak, astebetean egin ez dudana ohea amak txukun txukun egin didala ikusteak, Bilbo zaratatsuan aste bete igaro ondoren Karakate puntan somatzen dudana isiltasunak, lagunak zain egon ez beharra, etxeko atari parean aparkalekua aurkitzeak, irratan aspaldian entzun ez ditudan "Ertzainak"-en abesti bat entzuteak... Garrantzitsuak ez diren gauza garrantzitsuak.

Ez dut uste Europako Konstituzioa bezalako gauza "handiek" inor zorionsu egiten duenik, ala bai??

ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Aupa zu Amaia!!

Aupa zu eta biba zure ustea!

Aita Santuari bakean hiltzen ere ez diote laga batzuek (niri lasai bizitzen ez behintzat; telebistan ez zegoen besterik!) Eta berri polemiko honek ez dio ezer berririk eman nire izateari.

Domeka honetan kaxaz beteko dira inguruko eskolak. Eta kaxak paperez; paperak botoz; eta botoak (barkatuko dit norbaitek) maliziaz. Herriar asko eta asko ilegal sentitzen diren bitartean, politikari bat ospakizun afari goxoan izango da; herriak bere gezurrak sinestu dituela dioen berri polemikoa txanpainetan bustiz. Betiko berria da, garrantzitsua eta inportantea Amaia. Baina niri ez dit sabelean kilikilirik egiten.

Barkatuko dit norbaitek sarritan hemendik hanka egiteko sartzen zaidan gogoak. Alde egin, politika ahaztu, ekonomia, erlijioa, gizartea eta bere gerrak. Sarritan aspertu egiten naiz eta zin dagizuet; hauek gutxitan egin naute zorionsu.

Zurekin nago Amaia. Mutilarekin edo lagunekin nagoenean bezalaxe, oilo narrua jartzen zait itsasoarekin berba egitean; edo ume batek barre egitean; kukua lehen aldiz entzutean txanponik ez daroadala ohartzean... Beste gauzek, dena aldrebestearekin nahikoa izaten dute.

Patxo I.

«Bizitzan
garrantzitsuena
garrantzitsua ez
dena da»

AMAIA

«Ados nago. Oilo
narrua jartzen
zait itsasoarekin
berba egitean»

AINHOA



BIZITZA DA BESTE PLAN BATZUK EGITEN ARI ZAREN BITARTEAN
GERTATZEN ZAIZUNA



John Lennon

Benetako demokrazia eta behin betirako bakearen alde

25 urte eta gero, aldaketa politikorako garaia heldu da. Hiru faktorek adierazten dute honakoa: Estatuaren modeloaren krisiak; geure etorkizuna erabakitzeko eskubideari buruzko eztabaidak eta, azkenik, herri kontsulta eztabaida politikoaren ardatz kokaturik dagoela. Bakea da orain gure herriaren lehentasuna.

Lehentasun honi erantzun asmoz, BATASUNAK "Orain herria Orain bakea" ekarpena plazaratu zuen iazko azaroaren 14an, konponbide demokratikoan aurrera egin eta gatazka politiko eta armatua negoziazioaren bidez gainditzeko.

Borondate berberarekin aritu ginen, abenduaren 30ean, Gasteizko parlamentuan; baita Espainiako eta Frantziako presidenteei gutuna zuzendu genienean ere.

Ildo berean, Nazio Ertabaida Gunean, hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek lehen akordio zabala sinatu genuen martxoaren 5ean.

Herritarren gehiengoa elkarrizketa eta negoziazioaren bitartez gatazka konpontzeko prozesuari heldu behar zaiola eskatzen ari da. Ibarretxek, aldiz, bizkar eman dio eskari horri eta hauteskundeak aurreratu ditu xede

nagusi batekin: BATASUNAK konponbiderako abiatutako dinamika eta egindako deialdia alboratzeko eta gehiengo absolutua lortu Gasteizen gobematzen jarraitzeko. Hautu bat egin du: hauteskunde ez demokratikoak deitzea, non askatasun demokratikoen alorrean urraketa ezin larriagoak ematen ari diren.

Batasuna eta Aukera Guztiak ilegalizatuak izan arren, Ibarretxe prest dago egoera honetatik sortuko den parlamentu ez demokratikoa kudeatzeko. Hori dela eta, azken momentuan, egoera antidemokratiko hau ikusirik, ezkerreko alderdi txiki bat, EHAK, bere programa erretiratzeko eta eskubide demokratikoen defentsa Parlamentura eramateko prest azaldu da. Eta honek ezkerreko abertzaleok zein demokrata guztiok begi onez eta ilusioz ikusten dugu.

EHAK-ri botoa emateak zertarako balio du? Alde batetik, ilegalizazioari eta askatasun demokratikoen urraketa erabatekoari erantzuteko. Alderdien Legea inposatu nahiz lege honetatik etekinak atera nahi dituztenen aurrean, euskal herritarren erabakia errespetatua izan behar duela erakusteko bozka eraginkorra izango da. Eta bestetik, Bakearen alde egiteko. Behin betirako bake prozesua martxan jartzeko

Anoetako proposamenari bultzada sendoa eman behar zaio hauteskundeotan. Eta hori egitera animatu nahi diegu elgoibartar guztiak.

ELGOIBARKO EZKER ABERTZALEA

Gipuzkoako Uren Partzuergoa

Irakurleotako askok jasoko zenuten dagoeneko Gipuzkoako Urak S.A. partzuergoak bidali duen lehen ordainagiria. Ez dakit aurreragoko ordainagiriren batekin konparaketarik egin duzuen, baina gomendagarria delakoan nago. Gure etxeko kasuan, ur metro kubo kontsumo berarentzat, %84 inguruko igoera izan dugu, %84-a esan dut, ez IPC edo ohizko beste tasarik.

Honekin, zenbait galdera etorri zaizkit burura: gestio edo kudeaketa aldaketak elgoibartarrok kontsumitzen dugun uraren jatorri, kalitate edo balioa aldatu al du? Ur bideratzea hobetu al da? Uraren zaporea aldatu al digute? Ezezkoan nago; lehen geneukan ur jatorri, bideratze eta kalitate berebra ditugulakoan nago. Hortaz, zer dela eta %84-ko igoera ordainagirietan? Ur partzuergoaren kudeaketa udalarena baino askoz garestiagoa bada, zer dela eta aldaketa? (Santa Ana kalean zabaldu duten bulegoa eta inguruetan ikusten diren kotxe berri sorta ordaintzeko agian?)

G. A. - 15.386.474A

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzeara: **izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.**

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jassone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZALEA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmukaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Aitor Vives ESABEA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

- Urasandiko bizilagun batek esan digunez, **autoek ez lukete Madalako errotondarako bidean aparkatu behar**: "Urasanditik Madalako errotondarako bidea zentzu bakarrekoa da zati handi batean, baina badago zati bat bi norabidetakoa dena, eta bertan autoek aparkatzen badute, ez dago bi auto gurutzatzeko lekurik. Gainera, zati honetan aldapa handia dago, eta ez da batere erraza maniobrak egitea. Ez dira hainbeste auto kabitzen zati horretan, mesedez, beste toki batean aparka dezatela".

- Herritar batek esan digunez, **inork ez digu Babes Ofizialeko Etxebizitzan gaineko informaziorik ematen**: "Pasa den asteko BARRENean eta Diario Vasco egunkarian Madalan 16 babes ofizialeko etxebizitza eraiki behar dituztela argitaratu zen. Udalera deitu eta honen gaineko informaziorik ez dutela esan didate, eraikiko dituen enpresara deitzeko. Bertara deitu eta udalera deitzeko erantzun didate. Norbaitek argibiderik emango al digu interesatuta gauden herritarri?".



- Erretxindiko bizilagun batek kexa hau helarazi digu: "**Telefono kabina berria jarri zuten auzoan, baina metro batzuk beherago zegoen kabina zaharra kendu zutenean lana amitu gabe utzi zuten**: Izan ere, kabina bertan egon zela gogoratzen duten harri batzuk laga zituzten. Ez dakit zeini dagokion, baina horrelako detaileak zaindu beharrekoak iruditzen zaizkit. Herri erdialdean ez zen horrelakorik gertatuko, baina badirudi, hurrunagoko auzoak ahaztuta gauzkatela. Kabina inguruan dauden belarguneak ere, esaterako, auzokide batek landatu eta zaintzen ditu".



TXALOAK

- Haur talde bat etorri da **Vaya Semanita** saioko kideak ekarri genituela-eta, BARREN astekarikoi eskerrak ematera. Izan ere, Iñigo Agirre, Nerea Garmendia eta Gorka Otxoak eskaini zuten mahaingurua oso atsegina izan zen eta gazteek argi utzi zuten telebistan erakusten duten umorea dutela bizitzan er."



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: baren@elgoibarkoizara.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
 BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



URRZUNOREN Luma

Oroitzapenak

Egunek oroitzapenak dakartzate, itsasoak olatuak bezala. Guk ez dakigula nola edo zerk eraginda, zenbaitetan era batekoak ala besteak izaten dira. Egunotan, nere aita zenez akordatzen naiz. Egunkaria eta ogia eskuetan hartuta, kalean gora ibilera mantsoan etxerantz etortzen ikusten dut. Eta bai poza! Berriz etxera etor zedila nahiko nuke; kaleko atearen hotsa entzun eta bera pasiluan barrena sukalde barrura sartu zedila, gurekin egoteko. Ezinezkoa da, ordea. Halakorik ez dela sekula gertatuko jabetzen naiz. Bizitzaren legea da; bizitzeak hiltzea du zor. Tartean, bizitza oparoa izan bada, gaitzerdi.

Jon Eugi

[ZORTZIKO TXIKIAN]



OLATZ BEITIA

FISIOTERAPEUTA

- **Zein famaturi emango zenioke masajea?**

Bittor Alkizari, operatu egin behar dute, eta uste dut ez dela beharrezkoa.

- **Gaur Egun zein da zure ametsa?**

Orain arte bezala jarraitzea: lana eduki eta lasai bizitzea.

- **Bertatik Bertara zein leku ezagutzea gustatuko litzaizuke?**

Txile edo Suitzara joango nintzateke gustura.

- **Goenkale bezalako herri batetan biziko zinateke?**

Bai. Herri oso txikia da, baina lasaia. Lasaitasuna gustatzen zait bizitzeko.

- **Norekin sartuko zinateke Basetxean?**

Ez nintzateke horrelako programa batetan sartuko.

- **Noiz esaten duzu *Esta es mi gente*?**

Familiakoekin nagoenean.

- **Hitzetik Hortzera erabiltzen duzun esaldia?**

"Ala por ahi" edo "ondo lo in", azken hau edozein momentutan erabiltzen dut.

- **Jaso al duzu inoiz *Pasalo* mezurik?**

Bai. Madrilgo atentatua gertatu zenean Bartzelonan nengo, eta jaso nuen horietako mezu bat.

komikia



"2x1.
Zure emaztea eta amaginarreba lurperatzen ditugu. Oraindik ez badira hil, utzi dena gure esku"

Marketing erasokorra!



Kokoe 13

[AKORDATZEN NAIZ]



FELISA BERGARETXE

1915an jaioa

«Gerria»

Gerria hasi zanian, gu Negurira juan giñan. Oilluak ere geurekin eraman genduzen, eta arrautzak jaten genduzen. Tropak Azkarate gaiñera allegau ziranian, hamendik ospa egin bihar izan gendun, eta Negurira ihes egin gendun, trenez. Nere ahizpa han ezkondua zaguan, eta haren etxera juan giñan.

Ahal gendun urrutixena juan bihar izan gendun. Aittak lanera etorri bihar izaten zaban Ermura, eta, haura bakarrik ez lagatzeko, berakin etortzen nitzan batzuetan.

Zazpi hillabetez egon ziran tropak Arraten. Gero, Durango aldetik ere Nazionalak sartzen hasi ziran, eta han gudari mordua hil ziran. Nere aittakin, berriz, Negurira nixela, Gernika bonbardeatzen hasi ziran. Gu kostaldeko bidetik juan giñan, eta zerutik bonbak nola botatzen zittuen ikusten gendun. Justu-justuan pasau giñan. Gu Negurin giñala, nere koiñatua beltz-beltz eginda etorri zan, Gernikatik pasau ostian.

Nere aitta eta nere mutil-laguna espetxeratu egin zittuen Bilbon. Hiru urtez egon zan nere aitta kartzelan, iñungo kulparik be. Nere mutil-laguna, berriz, 6 urtez, eta beste hiru desterrauta. Egunero juaten nitzan aittari eta mutillari jatekoa eruatera kartzelara.

Nere mutil-lagunari *pena de muerte* ezarri ziu. Iruñako Don Marcelino Olakoetxea obispua-rengana jo naban, kulparik ez zaukala esateko, eta berak Francori, generalisimuari, gutun bat idatzi zion. Zorionez, libre utzi zeben. Oindik goguan daukadaz gutun haren lehenengo lerruak: "Pido a Dios que le ilumine la inteligencia para que haga las cosas bien, porque como en el caso de este chico y de muchos otros, están con pena de muerte sin haber hecho nada...".

Akusazio faltsu asko egin ziran sasoi haretan, eta jende on asko hil zeben.

Gudari mordua hil zittuen iñungo kulparik be. Jende gaizto asko zaguan orduan.

[GURE BERBAK]

Zereko zera zeratu da zerian

Askotan erabiltzen da ZER hau ahozko jardunian (hiztun batzuek hiztegiko hitzak ahazteraiño). Jakiña, idazterakuan baiño asti gitxixago izaten dogu berbetan ari geranian, eta berbaren bat burura ez datorkigunian, ZER horrek ordezkutzen dau dana dalako berbiori, harik eta burura etorri eta esaten dogun arte; izenen ordezkari nahiz aditzen ordezkari erabiltzen da. Hona hemen herritar batzuen jardunetik etaratako erakusgarri batzuk:

Lau laguntxo juntatzen gaittuk, eta zeria, jokuan egiten juagu.

Da zeria lan egin naban, Arananeke tallarian.

Zera ta barrez ikusi nittuan atzo, Miren eta.

Zertuta dago Patxi, zahartuta.

Kale-umiak zera jakingo jok basarriko berri!

Zerbaitten berri eman nahi ez dogunian ere erabilli geinke:

- *Zein ikusi dozu neska txikixen etxian?* - *Zereko zera zera.*

Eginkizun horretarako, beste formula batzuk ere badaukaguz:

- *Zenbat urte daukazuz?* - *Erdixak eta beste hainbeste.*

- *Nun dago Pello oporretan?* - *Jun da jun, da bertan.*

Jesus Mari Makazaga



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL



ASEGURUA

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

Malape taberna

Opain astegunetan



San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

© Malape
Elgoibar 141345

“Gauzak umorez hartzen ez badituzu, deprimitu egiten zara”

ETB2 kateko saiorik arrakastatsuen da Vaya Semanita. Euskal Herrian ez da inor egongo ostegun gauetan emititzen den saio honetako pertsonaiak ezagutzen ez dituenik. “La cuadrilla”, “El pelanas”, “La Maite”, “Joxepo” edo “Amoroto” bezalako hitzak askoren ahotan entzun daitezke edozein bazterretan. Pasa den astean izan zen BARREN astekariak antolatzen duen Ezagunak Lagun egitasmoaren bigarren saioa eta gure artera gonbidatu genituen Vaya Semanita-ko bi aktore eta kazetari bat: Nerea Garmendia, Gorka Otxoa eta Iñigo Agirre, hain justu. Bi orriotan laburbildu ditugu hiru lagunek han esan zituzten hitzak. Iñigo Agirrek egin zituen kazetari lanak.

E
Z
A
G
U
N
A
K

“Zuritoa eskatzean ere txikitoa ateratzen didate!”

GORKA

Iñigo: Vaya Semanitik bizitza aldatu al dizue?

Nerea: Aldatu, aldatu noski aldatzen dela. Lehen kaletik joan eta inork ez zekien nor zinen eta orain jendeak ezagutu egiten zaitu.

Gorka: Profesionalki ere garrantzitsua izan da programa arrakastatsu batean lan egitea.

I: Baina, egia esan, kalean zoztenean jendeak izenez deitzen dizu ala “Tiabuenorra” eta antzekoak esaten dizkizue?

N.: Izena ez

G.: Niri askotan “Txaraina” esaten dit jendeak eta baita Joxepo ere, nahiz eta Joxepo ez izan. Denok gara Joxepo.

I: Noiz erabaki zenuten aktore izatea?

G.: Ni Institutuan Antzerki taldean nengoen eta gustuko nuen. Gero, kasting batera joan ginen Goenkaleko zerbait egiteko, eta halaxe hasi nintzen.

N.: Nik gurasoekin bazkaltzera joan nintzen batean esan nien aktore izan nahi nuela. Besterik gabe.

I: Fisikoak markatzen al du?

N.: Egia esan, pertsona bakoitzak daukan aurpegiaren arabera pertsonai bat edo beste bat ematen diote. Markatzen du baina ez aktore izateko orduan bakarrik, baita eguneroko bizitzan ere.

G.: Ni sudurrak markatzen nau baina denetik egitea tokatu zaitu, beraz...

I: Nik zer esango dut ba, fisikoak ez dit sekula markatu eta.. (kar, kar). Tira, gaiz aldatuz. Nola lortzen da gauzetaz barre egitea baina jendea moskeatu gabe?

G.: Hor dago koxka. Mugan gaude eta batzuetan pasatzeko arriskua dago eta gerta daiteke batzuei ez gustatzea.

N.: Halere, batzuetan txisterik onenak hain zuzen esatera ausartzen ez garen gai horietatik ateratzen dira. Oso inportantea da geure buruaz barre egiten jakitea, hori bai, beti errespetuz.

dakienak
“Txipirona”
e d o
horietakoren bat
botatzen dit
batzuetan.





“Beste paper mota bat egin nahi nuke baina umorea matxista da”

NEREA

I.: Niri, egia esan, politikoekin lane gitea tokatzen zait eta muturreko alderdiekin ondo eramatea beharrezkoa da.

Behin, PPko ekitaldi bat zegoen Getxon eta bertara joan ginen. Ez genuen oso harreman estua beraiekin eta produktorea eta biok bizkarzainek lepotik helduta atera gintuztetan.

G.: Gero San Gil etorri zen eta dena aldatu zen, ezta?

I.: Tira, hobe beste gai bati heltzea. Esaterako.. meritua norena da, gidoilariena ala aktoreena?

G.: Argi dago oso gidoilari onak daudela eta euren lanik gabe guk ezingo genuke egiten duguna egin.

N.: Gidoilarietz gain publikoa ere hor dago eta oso inportantea da guretzat gure emaitza jaso eta gustatzen zaiela jakitea.

I.: Lankideen artean giro ona egotea oso inportantea da, ze edozeri buruz edozer esateko gai zara eta hori oso emankorra da.

N.: Bai, ze gerta daiteke zuk txorakeria bat egin eta gidoilariak hori aprobetxatzea gero zerbait idazteko.

I.: Bai, hori da. Nik badut bitxikeria bat horren inguruan. Kontua da ni nahiz eta Vaya Semanitako kidea izan sekula ez dudala bolorik izaten, gaurkoa da lehe-

nengoa. Ni

Ispazterrekoa naiz, Lekeitio ondokoa, eta behin asmatu nuen Amorototik deitu zidatela jaietan pregoia emateko. Gezurra zen baina gidoilariak gustatu egin zitzaion Amoroto hitza eta orain klasiko bat bihurtu da.

N.: “Pelanasena” ere halaxe hasi zen. Figurante bati “Pelanas” deitzen zioten eta orain pertsonaje baten izena da.

I.: Zuek gustura al zaudete antzesten dituzuen pertsonaiekin?

N.: Gustura, gustura... Nik argitu nahi nuke umorea matxista dela, bai Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Beraz, amorrur piskat ematen dit beti “la tia buena” eta “la etxeokandrea” izatea. Niri gustatuko litzaizadake beste paper mota bat izatea.

G.: Gidoilarietara askotan hitz egin dugu gai honetaz baina beraiek beti esaten dute mutilak askoz sinpleagoak garela eta umorea berez matxista dela.

I.: Portzietara, famatuek asko ligatzen dutela diote. Nire kasuan dena gezurra da baina zuen kasuan?

N.: Ligatu ez da hitza. Jendeak ezagutu egiten zaitu eta errazago hurreratzen zaizu hitz egitera.

G.: Niri bakarrik mutil mozkorak hurreratzen zaizkit!

N.: Baita niri ere!

I.: Bai, nire kasuan behintzat sorbaldatik zintzilikatzen zaizkit eta “Valiente” oihuka hasten dira!

G.: Eta handik ordubetera oraindik ere han dituzu “Valiente” oihuka!!! Kar, kar! Baina ezin kexatu, estimatzen da hitz politikak entzutea.

I.: Eta kuadrillak eta lagunek nola bizi dute zuen fama?

G.: Ba, egia esan, beraiek batzuetan sufritu egiten dute, ze ez da oso atsegina leku batera joan eta jendea begira dagoela ikustea, baina bueno.

I.: Jendeak bereizten al ditu pertsonaia eta pertsona?

G.: Kasu honetan bai, ze paper bat baino gehiago antzesten dugu, baina niri gertatu izan zait tabernara joan eta zurito bat eskatu eta kamareroak txikitzea

ateratzea! Maribelek, Sanchez taldeko amak, mosto bat eskatu zuen behin eta azkenean txikitza edan behar izan zuen!

I.: Anekdotak ere izango dituzue?

N.: Niri behin, hondartzan geundela, zakur batek izterrean txiza egin zidan!

G.: Ni akordatzan naiz tokatu izan zaigula ur barruan egotea izoztu beharrean, urdin-urdin eta, gainera, kantzontziloak ardoz eta arez beteta eta jendea zuri begira egotea barrez!

I.: Bizitza honetan gauzak umorez hartzen ez badiuzu deprimitu egiten zara. Jakin egin behar da besteez eta nor bere buruaz barre egiten! Maliziarik gabe, hori bai.

G.: Malizia piskat ere komeni da..

I.: Vaya Semanitaren arrakastaren ostean, zer?

N.: Ni orain ez naiz konturatzen lortu dugun arrakastaz, akaso urte batzuen buruan ohartuko gara ETBren historian zeinen garrantzitsua izan zen saio hau, eta baita gure bizitzan ere.

“Amoroto gezur baten ondorioz klasiko bihurtu da”

IÑIGO



[PROTAGONISTA]



Joseba **Etxeberria**

Athletic futbol taldeko jokalaria elgoibartarra izan zen joan zen larunbatean Athletic eta Realaren arteko derbyko protagonistetako bat. Elgoibartarrak adierazpen garrantzitsuak egin zituen partiduen aurretik: "nik ez daukat bigarren talderik, Athletic da nire talde bakarra". Azkenean, talde bilbotarrak irabazi zuen norgehiagoka 3-0.

Joseba Etxeberriak 93-94 denboraldian debutatu zuen 1. mailan Realean. Bederatzi denboraldi daramatza talde txurigorrian, 337 partidu jokatu ditu guztira, eta 83 gol sartu ditu.

[NOTIZIA]

Azoka Sigman jartzeko prest daudenen kontrako mehatxuak salatu ditu Udalak

Marivi Agirregomezkorta alkateak, bere Gobernu Batzordearen babesarekin, prentsaurrekoa eskaini zuen Eusko Jaurlaritzak egindako irisgarritasun txostenaren gainean balorazioa egiteko. Berak adierazi zuenez, "Elgoibarko Udalak ez ditu Euskal Kontseiluak egin duen txostenaren xehetasunak ofizialki ezagutzen, eta gainera, txostenaren edukiak lotsarazi egin gaitu". Alkatearen esanetan, PSE-EE eta EB alderdiak azokaren gaia kanpaina politikoa egiteko erabiltzen ari dira.

Mehatxuak

Talde txiki batek azoka Sigman jartzeko prest dauden merkatariek mehatxatu egin dituztela adierazi zuen alkateak. Bestalde,



EAJ eta Eako ordezkariak irainak eta mehatxuak jasaten ari direla adierazi zuen, "eta oraindik ez dugu PSE-EE, PP eta EB alderdien babesik jaso". Azkenik, herri galdeketa ez duela kontuan hartuko adierazi zuen, eta azokarentzako leku onena Sigma dela mantentzen du.

[ZENBAKIA]

8.964

Datorren igandean, apirilaren 17an, ospatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak, eta interesgarria iruditu zaigu Elgoibarko errolda zenbatekoa den argitaratzea: 8.964 elgoibartarrek izango dute bertan botoa emateko eskubidea. Gure herrian 10.538 biztanle bizi dira guztira.

asteko [ARGAZKIA]



Kontseilu Errektoreak, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumenaren eskariz, Debarrenen airearen kalitatearen kontrolerako kabina bat Ikastolan jartzea onartu zuen, herri administrazioekiko elkarlanaren irizpidea jarraituz, eta inolako kalterik eragingo ez zuela ziurtatu ondoren. Kabina Ikastolaren goiko sarbidean dago, Roberto Garcia Elgoibartarrak margotu du, eta Euskal Autonomia Erkidegoan zehar hedatzen diren ingurumenaren kontrol kabinen sarean sartuko da.

Etxeko zaborrak nola birziklatu behar diren azaldu du Udalak



Elgoibarko Udalak etxean sortzen diren zabor desberdinak nola birziklatu daitezkeen azaldu du hilabete honetako Kultur Gidan. Besteak beste, zabor kontenedore bakoitzean zer bota behar den, telefono interesgarriak edota zabor bereziak noiz atera daitezkeen azaltzan da bertan.

Zabor bakoitza bere lekuan

Zazpi multzotan bereiztu ditu Udalak etxean sortzen diren zaborrak: 1. Papera: Zabor kontenedore urdinera bota behar da. 2. Plastikoa, tetra-brick, metalezko ontziak: kontenedore horira. 3. Beira:

kontenedore berdera. 4. Pilak: kontenedore hori txiketara. 5. Oihala, jantziak, zapatak: kontenedore zuria. 6. Tresna elektrikoak, altzariak eta informatika tresnak: Urruzunoko zabortegira eraman behar dira, astelehenetik ostiralera goizez. Altzariak kalean ere laga daitezke, aurrez Mankomunitatera deituz (943 70 07 99). 7. Olioia, termometroa, pintura, telefono mugikorrak... Hilabeteko hirugarren ostiralean Plaza Handira etortzen den garbigune mugikorrera eraman behar dira, goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean.

60 urteko kartzela zigorra adin txikiko bi neska bortxatzeagatik

Donostiako fiskalak 60 urteko kartzela zigorra eskatu du, mozkorturik zeuden 14 urteko bi neska bortxatu zituzten 3 gazte portugaldarrentzat.

lazko otsailaren 7an izan zen gertakizuna Elgoibarren. 19 eta 24 urteko bi gaztek, 14 urteko bi neska ezagutu zituzten, eta hauek edanda zeudela aprobetxatuz, Emuara, beraien etxera, eramateko eskaintza egin zieten. Neskak beren borondatez joan ziren, baina beraien egoeraz aprobetxatuz, gazte batek bietako bat bortxatu egin zuen. Elgoibarrera itzultzean, neska

batek alde egin zuen, baina 27 urteko beste mutil batek bigarren aldiz bortxatu zuen beste neska.

59 urte eta erdi

Fiskalak 59 urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du hirurentzako. Clara Campoamor Elkarteak eta familiako akusazioak 50-70 urte arteko zigorrak eskatzen ditu gazte bakoitzarentzako. Defentsak aldiz, gazte bat libre uztea eskatzen du, bigarrenarentzako urtebeteko kartzela zigorra, eta hirugarrenarentzako sei hilabetekoa.

[MOTZ-MOTZIAN]

Alderdi Politikoak kanpainan

Datorren igandean, apirilaren 17an, ospatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak. Alderdi Politikoak kanpaina egiten aritu ziren gure herrian joan zen astean. Jarraian bildu ditugu kanpainako argazkiak.



Aralar



EB-IU



EHAk



PSE-EE

Inkesta

Supermerkatu batek erosketak internetez egiteko aukera eman die gipuzkoarrei **Erabiltzen al duzu internet erosketak egiteko orduan?**

VICENTE BELADA
Metalurgikoa
49 urte



“Ez, nabigatzeko soilik erabiltzen dut. Dendan produktua aukeratzeko duzu, eta internetez ez dakizu zer erosten duzun. Gainera txartela kopiatzeko arriskua dago.”

BITTOR GONZALEZ
Harakina
32 urte



“Ez. Etxean ez daukat internet, beharbada aukera izan-go banu erabiliko nuke, dendara joatea baino erosoagoa izan daiteke. Momentuz dendan egiten ditut erosketak.”

IRUNE IRIONDO
Dekoratzaila
41 urte



“Ez. Gaur egun daukadan bizimoduarekin nahiago dut erosketak dendan egitea. Denborarik izango ez banu, akaso erabiliko nuke. Oso gutxi ibili naiz interneten.”

NURIA JUSTO
Erizain laguntzailea
29 urte



“Ez. Nahiago dut dendara joan, eta produktua gertutik ikustea. Gainera ez dut uste internetez erostea oso seguru denik. Momentuz ez daukat horren beharrik.”

[**BAI** ala **EZ?**]

Behar al da hainbeste etxe berri Elgoibarren?

BAI %52

“Egia da etxe berri asko egiten ari direla baina ni kopuruak baino prezioak kezkatzen nau gehiago. Ze preziotan? Nik behintzat ezin ditut prezio horiek ordaindu.”

EZ %48

“Kontua da egiten diren etxe berri guztiak bete egiten direla. Hutsik geratzen ari diren bigarren eskuko etxeak eta alkilerrekoak promozionatu beharko lirateke.”

Datorren asterako... **Argaltzeko dietak, kiroldegiak jendez gainezka...**

Udarari begira, zuk ere zaintzen al duzu itxura?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean bi pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

Meka-ren sortzaileek omenaldi beroa jaso zuten

Apirilaren 8an, ostirala, izan zen Elgoibarko Institutuaren 50. urteurren-ospakizuna. Eguerdiko 12ak aldera hasi zen ekitaldian parte hartu zuten M.Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburuak, Alvaro Jorge Lanbide Heziketako Sailburu ordeak, AFMko zuzendari orokorra den Alberto Ortuetak eta Marivi Agirregomezkorta alkateak, esaterako. Aretoa gainezka zegoen eta bertara hurreratu zirenek Institutuaren historia errebasatzen zuen bideoa ikusi ahal izan zuten. Halere, unerik



hunkigarriena sortzaileei egindako omenaldia izan zen. Hala, Amadeo Aizpitartek, ikastetxe honetako estreinako

zuzendaria izan zenak, Manuel Zabala, uis Mari Iriondo, Vicente Elkoroiribe, Jesus Rementeria, Agustin Gorostiza, Jose Elkoroiribe eta Victor Zabala irakasle ohiek, Pedro Jose Arriola bulegariak eta Pedro Gabilondo idazkariak Arturo Andrade elgoibartarrak egindako eskultura jaso zuten oroigarri gisa, Katanarra arkuaren eskultura ederra. Ekitaldian, gainera, une honetan eskuartearen duten Meka proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten eta agitasmoaren garrantzia azpimarratu zuten bertara inguratu zirenek.



IMH sarien III. edizioa ospatu zen hilaren 11n

Ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleak omentzeko helburuarekin, IMH sariak banatu ziren joan zen astelehenean. 2005. urteko ikasle aipagarriaren saria mekanika arloko Aitor Galdos bergararrari eman zioten. Ivan Segovia mantenimendu arloko ikasle azkoitiarrak aipamen berezia jaso zuen, eta ikasle ohi aipagarriaren saria Goratu enpresako I+G+b zuzendaria den Aitor Agirre mutrikuarrari eman zioten. IMHk sarien enpresa babesle gutxiei eskerrak eman nahi dizkie.

[IRTEERAK]



Herri Eskolakoak Deba Bailarako ibilaldi neurtuan

Morkaikk antolatuta Herri Eskolakoak Arrasaten izan ziren Deba Bailarako ibilaldi neurtuan. Autobusak Udala auzoan utzi zituen, eta Udalaitz mendi azpitik Besaidera joan ziren. Hamarretakoa egin ostean, Kobateko bailaratik jaitsi ziren Garagartza auzora, ibilaldiari amaiera emanez.



IMHko ingeniartzako formazio mintegia


Ingeniaritzako 1. mailakoek formazio mintegia egin zuten Donostian, taldeko proiektu kudeaketarekin barneko talde dinamika sendotzeko helburuarekin. Ikasle-langilearen lan profilerako gaitasunak aztertu zituzten eta enpresei interesatzen zaizkien erreminta teknikoak definitu zituzten.



IRAKASLEARI azterketa

Haur Hezkuntzako hezitzailea

MIKEL JUARISTI



- 1 Ikasle "enpolloi" horietakoa al zinen?**
Keba. Aprobatzeko egin behar zena, justukoa, egin eta kitto!
- 2 Zertan ematen zenituen "piper" egindako orduak?**
Bakarrik sekula ez, lagunekin egoteko egiten nituen.
- 3 Notak direla-eta inoiz gezurrik esan al diezu gurasoei?**
Ez, ez zen beharrik egon. Alde horretatik zintzoa izan naiz.
- 4 Aldamenekoari kopiatu edo txuletarik egin al diozu inoiz?**
Bai, txuletak erabili izan ditudala aitortu beharra daukat.
- 5 Ikasle on batek eduki beharko lituzkeen ezaugarriak?**
Haur Hezkuntzan pazientzia ezinbestekoa da, handia, gainera. Horrez gain, bamean darماغun umea atera behar da eta lotsa gutxi izan.
- 6 Gehien eta gutxien gustatzen zitzaizkizun irakasgaiak?**
Gehien historia eta gutxien hizkuntzak, euskara izan ezik.
- 7 Ematea gustatuko litzazukeen irakasgaia?**
Gimnasia, kirol zalea bainaiz. Bestela, euskara.
- 8 Irakasle izatearen onena?**
Beste lan batzuk probatu ditut eta alde ederra dago tailerrean makina batekin aritu edo haurtxoekin ibili. Askoz aberasgarriagoa da hemen sortzen den giza harremana.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ARANTXA ZULAIKA ama



MAIALEN GALLASTEGI alaba

GALDERAK

- | | | |
|--|--|--|
| 1. Ama/alabaren gauza on bat aipatu? | 1. Ondo portatzen denean maitagarria da. | 1. Nahi ditudan gauzak erosten dizkidala. |
| 2. Gogoko eta gorroto duzun janari bana? | 2. Mariskoa gehien eta kalloak gutxien. | 2. Makarroiak tomatearekin eta purea. |
| 3. Gustuko edari bat? | 3. Sagardoa. | 3. Kas-a, laranja zaporekoa bada hobea. |
| 4. Reala edo Athletic-eko jokalaria bat? | 4. Zubiaurre, Realeko mendarorarra. | 4. Realeko Kovacevic. |
| 5. Zer izan nahi zenuen handitan? | 5. Andereñoa izan nahi ez nuela argi nuen. | 5. Albaitaria, animaliak gustuko baitituz. |
| 6. 20 urte bazenitu? | 6. Gehiago bidaiatuko nuke. | 6. Diru gehiago edukiko nuke gastatzeko. |
| 7. Zerk hasarratzen zaitu? | 7. Umeak borrokatu eta bullaka hasteak. | 7. Nire ahizpa txikiak, batzuetan. |
| 8. Azkena ikusi duzun filmea? | 8. "La Mala Educacion". | 8. "Ana Louise eta Anton". |

TXIKI inkesta

Zer dira hauteskundeak, zertarako balio dute?

Silvia P.M.
10 urte

Partido bakoitzeko pertsona bat jartzen da, guk botoa eman, eta gehien lortzen dituen presidente.



Josu Perales
10 urte

Adibidez, Ibarretzek esaten du: botoa ematen badidazue, bizitza hobea edukiko duzue eta hiri pobreek etxe gehiago.



Ane iturbe
10 urte

Ibarretzek presidentea nahi badu izan propaganda egiten du. Adibidez: Ni aukeratzan banauzue merkadiloa jarriko dut.



Joanes Etxabe
10 urte

Etxe batean egoten dira pertsona batzuk kaxa batekin eta etxera gu joaten gara eta botatu egiten dugu.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako
"GIPUZKOA ZURE ESKU"
mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Iker Odria**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo
posta elektronikoz bidali:
barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

GAZTEAK ETA

GAUR EGUNGO GAZTEEI INTERESATZEN AL ZAIE POLITIKA? HAUTESKUNDEEN ATARIAN GAUDE ETA GALDERA HONI ERANTZUNA EMATEN SAIATU GARA. ASKOTAN ENTZUTEN DA GAUR EGUNGO GAZTEAK OSO PASIBOAK DIRELA, ETA EZ DIRELA POLITIKAN INPLIKATZEN. GAZTEEN AHOTIK ENTZUN NAHI IZAN DUGU BERAIEN IRITZIA, ETA GAURKOAN HIRU GAZTE BILDU DITUGU, ARRAZOI DESBERDINAK MEDIO, POLITIKA GERTUTIK BIZI DUTEN HIRU GAZTE, HAIN ZUZEN ERE: HODEI OTEGI, JOSEBA FERNANDEZ ETA JON ZUBIAURRE.

Gaur egungo gazteei interesatzen al zaie politika?

Hodei: Nire ustez bai. Gazte askok esaten du politika ez zaiola interesatzen, baina benetako momentua iristen denean inplikatzeko dira, eta ematen dute botoa.

Joseba: Bai. Txarrena da, Elgoibarren gazte askok pentsatzen duena adierazteko beldurra daukala. Nik animatuko nituzke gazte sozialistak gure alderdian parte hartzera.

Jon: Baietz uste dut. Euskal Herriko alderdi guztiak beren gaztedia dute, eta alderdi konkretu batekin identifikatzen ez direnek ere politikari jarraipena egiten diote, eta egoeraren arabera ematen dute botoa.

“EHAKren botoekin egoera asko aldatuko da”

HODEI

Zuek zergatik sartu zineten politikan?

Hodei: Nire aita politikan oso bameratuta dago, eta nahi eta nahiez horrek eragina dauka, baina bestela ere sartuko nintzateke mundu honetan. Lagun asko dauzkat kartzelan, eta horrelakoetan derrigorrez inplikatu behar zara.

Joseba: Gurasoek ideia hauekin hezi naute, eta etxean ikusi dudana ikasi dut. 18 urte betetzean PSE-EE alderdira afiliatu nintzen. Gauzak aldatzeko mugitu egin behar da, zain ez da ezer lortzen.

Jon: Politikak erakartzen ninduelako, Euskadin politika bizi egiten da, eta herriarekiko konpromiso bat hartzen duzulako sartzen da bat politikan.

Gazteek politikaz paso egiten al dute?

Hodei: Ez dut uste. Gazte asko ez dira informatzen, baina gero gehiengoak joaten da botoa ematera.

Joseba: Paso egin baino, beldurra dutela uste dut, jendeak zer esango ote duen beldur dira. Aurpegia eman behar da, bestela ez da ezer lortzen.

Jon: Ez. Gazte batzuk paso egiten dute, baina ez askok.

Politikoez gazteen ahotsa hartzen al dute kontuan?

Hodei: Saiatzen direla uste dut, baina gero gauza asko ez dira betetzen. Politikoez proiektu asko dituzte, baina gero ez dira denak gauzatzen. Hauteskundeetan aurretik dena promesak dira, baina gero...

Joseba: Alderdi Sozialistak bai. Patxi Lopezek gazteei interesatzen zaizkien gauzak kontuan hartu ditu: etxebizitzaren prezioa, lana... Nik badaukat beragan konfiantza. Gazteak gara etorkizuna, eta derrigorrez hartu behar gaituzte kontuan.

Jon: Bai. Hor daude Babestutako Etxeak, Gaztelekuak, Gaztetxeak, gazteei zuzendutako programak eta ekintzak. Nire iritzia eta ahotsa kontuan izaten da, eta gaztea naiz.

Zer egin daiteke gazteak politikan gehiago inplikatu daitezen?

Hodei: Zaila da. Gu ilegalizatuta gaude eta udaletxean ezin dugu parte hartu. Lehenengo gauza aukera ematea da.

BARREN

POLITIKA

Joseba: Gazteei begiak ireki eta beraiekin hitz eginez. Inor derrigortu gabe.

Jon: Gazteek dituzten arazoak eta ideiak landu behar dira.

Elgoibar oso herri pasiboa dela esaten da. Ados al zaudete?

Hodei: Azkenaldian guk antolatutako ekintzetan jende dezente bildu da, eta Gazte Asanbladan ere badabil jendea. Gazteak biltzeko lokalik gabe oso zaila da gazteek ekintzak antolatu eta parte hartzea. Koadrila askok orain bere lokal propioa dauka, eta Elgoibarko gazteak oso banatuta gaude. Ideologia politikoa alde batera utziz, gazte guztiak biltzeko gaztetxea behar da.

Joseba: Ezin da orokortu, nik ikusten ditut ekintzetan parte hartzen duten gazteak. Ideologiak alde batera utzi behar dira, errespetuz gazteok elkarrekin dibertitzeko gai izan behar dugu.



“Gazte asko beren ideiak azaltzeko beldur dira”

JOSEBA

Jon: Ez, elkarte mordoak dauzkan herria da, eta politikoki ideia desberdin asko ditu.

Gazteen “pasotismoa” gurasoek dena eginda eman dietelako izan al daiteke?

Joseba: Ez da nire kasua behintzat. Autoa erosi dut, eta neu ari naiz ordaintzen.

Jon: Ezin da orokortu, batzuentzat gai batzuk interesgarriagoak dira, gazteak gai desberdinetan sartuta gaude, musikan, politikan, kirolean...

Nola ikusten duzue Euskal Herriko egoera politikoa?

Hodei: Nahiko eskas. Ilegalizatuta, eta Ertzaintzaren presioa jasaten uneoro.

Joseba: Aldrebestuta. Gure herrian bertan merkadilloaren egoerarekin dena desmadratuta dago.

Jon: Nahasia. Herriaren zati batek ezin bozkatzeara eta Madrilan elkar ikusi ezin duten bi alderdiak hemen eskutik joatea ez da normala. Egoerak onera egingo du, hori da gehiengoak nahi duena.

Hauteskundearen ostean aldatuko al da?

Hodei: Baietz uste dut. EHAK alderdiak portzentaje handi bat lortzen badu, gauzak aldatu daitezke. EAJk gehiengoak galduko luke, eta beldurtuta dabilizta.

“Herri honek nahi duen lehendakaria izango du, Ibarretxe”

JON



Joseba: Bai. Patxi Lopez ateratzen bada behintzat gauzak asko aldatuko dira.

Jon: Herri honek nahi duen lehendakaria izango du, Ibarretxe, eta bere kandidatura indar berrituta aterako da.

Gazteak politikarekin dezepzionatuta daudela esaten da.

Hodei: Izan daiteke, baina ez gazteak bakarrik. Elgoibartarrak ere dezepzionatuta daude merkadilloaren kontuarekin. Herriak azaldu du zer nahi duen, eta Udalak ez du kasurik egiten.

Joseba: Ezer egin gabe gelditzeko aitzakia da hori.

Jon: Denetarik egongo da, baina bizitza honetan gauza on eta txarrak denean daude, ez politikan bakarrik.

58 BAZKIDE BERRI

ELGOIBARKO IZARRAREN ETORKIZUNA JASOTZEKO

Mila esker!!

Lucia Etxabe

Montse Arreagi

Ixidor Solupe

Jone Olaizola

Julian Villena

Maidor Etxaniz

Gorka Garate

Nerea Bereziartua

Isaak Bergaretxe

Amaia Txurruka

Isabel Elortza

Aitziber Gorrotxategi

Miren Gorrotxategi

Amaia Lariz

Antton Alonso

Enkarni Migales

Asier Aranzamendi

Amaia Oñederra

Ana Santolaya

Naiara Martin

Aitzol Garmendia

Carmen Ferrer

Abel Arriaga

Ander Soraluze

Naiara Alberdi

Jose Mari Laso

Nerea Lodoso

Juan Mari Elustondo

Leire Agirrebeña

Jokin Altuna

Maidor Rojas

Itziar Leiaristi

Enara Gorostiza

Jon Gurrutxaga

Maria Pilar Beristain

Oihana Arrieta

Asier Gurrutxaga

Jon Zabala

Jabi Leon

Amaia Aranzamendi

Ibon Gorosabel

Lander Agirregomezkorta

Guillermo Ezenarro

Izortze Otaegi

Mirari Aranbarri

Iñaki Maiora

Ainhoa Mateo

Jose Luis Garaizabal

Eukene Gil

Unai Villena

Blanka Larrañaga

Imanol Capanaga

Asier Lasuen


Maria Orozko

Edurne Korta

Jose Luisa Huergo

Ainhoa Mendibil

Estitxu Perea



Zuk ere zurea jarri nahi badozu:

943 74 16 26

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

LEHIAKETA

Iñaki Ovejerok diseinatutako pegatinak irabazi du "Stop Sexismoari" lehiaketa



Iñaki Ovejerok irabazi du Biluzik Sexologia Zerbitzuak antolatutako "Sexismoari Stop" Pegatina Lehiaketa. Arte Ederretako 22 urteko ikaslea da eta antzerako lehiaketa batean parte hartu duen lehen aldia dela aitortu digu. "Ilusioa egin dit irabazteak eta horrelakoetan parte hartzen jarraitzeko gogoia ematen du". 200 euroko dirusaria jasoko du. "Sexismoari Stop" lehiaren atzean hainbat neska-mutilen euskal izenak jarri ditu Iñakik saritutako pegatinan. "Honekin, gizon-emakumeen arteko berdintasuna denon artean lortu beharreko helburua dela" adierazi nahi izan zuen. Norbaitek pegatinak nahi baditu, piska bat itxaron beharko du, San Bartolome jaietan banatuko baitira jendearen artean. Txosnetan eskuratu ahal izango dira. Biluzik Sexologia Zerbitzuak hirugarren urtez jarraian kaleratuko ditu pegatinak, baina lehiaketa antolatu duen estreinako aldia izan da.

DJ amsia Kultur Etxeko sotoan, gaur, hilak 15

"Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoko hotsak" izenburupean, datozen hiru hilabeteetarako kontzertuak antolatu ditu Sinuosek. Elektronika eta musika ausarta uztartzen duten 5 euskal artista/taldek eskainiko dute beraien musika Kultur Etxeko sotoan. "DJ amsia" Azkoitiko musikaria izango da kontzertu zikloa inauguratuko duena gaur, hilak 15 (22:30). Janek Schaeffer edo Christian Marclay bezalako musikarietatik gertu dago eta paisaia elektronikoak eratu edo "turntablism" delakoa egiten duela esan daiteke. Hurrengo saioa apirilaren 29an izango da. Gaizka Sarasola eta Iñigo Telletxea Lesaka eta Berako musikariek euskal folklorea eta elektroakustika parez pare jarriko dituzte.



EMDF eta Udalaren arteko akordioa

Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntzak eta Elgoibarko Udalak sinatu berri duten akordioari esker, musikarekin eta dantzarekin zerikusia duten Elgoibarko taldeak ordezkatu ditu Federakuntzak. Legedi berria indarrean sartzearen ondorioz, Musika eta Dantza Fundazioak lagatako lekua betetzera dator Federakuntza. Izan ere, otsailean ospatutako osoko bilkuran onartu zen fundazioa desegitea. Inazio Bereziartua Musika Eskolak, Elgoibarko Musika Bandak, Dultzainero Taldeak, Udal Txistulari Taldeak, Itxaropena abesbatzak, Parrokiko Abesbatzak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak osatzen dute Federakuntza. Jose Inazio Sarasola izango da lehendakaria eta Udalaren eta taldeen bitartekaritza izango da



erakundearen zeregin nagusienetako bat. Esaterako, dirulaguntzak gestionatzerako garaian. Federakuntzaren barruan 700 persona inguru daude eta 2005. urterako 408.000 euroko aurrekontua izango du.

XI. Idazlan Lehiaketako sari banaketa apirilaren 18an

Apirilaren 23an ospatzen den Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan Idazlan eta Marrazki Lehiaketa antolatzen du Udal Liburutegiak. XI. ediziorako aukeratu zuten gaia "Kirolari buruzko istorioak" izan zen. Gaia hau izanik, zein hoberik Joseba Etxeberria baino, Athletic-eko jokalaria elgoibartarra, sariak banatzeko. Sari banaketa, hilaren 18an, astelehenean, egingo da Liburutegiko atarian 17:00etan. Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko ikasleek parte hartu dute marrazki lehiaketan eta idazlan lehiaketan, aldiz, 5. eta 6. mailakoek. Lehiaketara aurkeztutako lanak Udal Liburutegian bertan jarriko dira erakusgai.

XABIER ZELAIA ESKUBALOI ENTRENATZAILEA

«Eskubaloi taldeetan bi zoro egoten direla esaten da; atezaina eta entrenatzailea»



ANTT senior mailako mutilen taldea entrenatzen hasi zen aurtengo denboraldian Xabier Zelaia (31 urte). Aurreko denboraldian azken aurreko postuan sailkatu ostean, mailaz igotzea lortu dute aurten. Jokaturako 16 partidatik bakarra berdindu eta 3 baino ez dituzte galdu.

👤 Denboraldi aparta egin duzue. Non dago sekretua?

Iaz entrenatzaile gabe aritu ziren eta talde sena falta zitzaion taldeari, fundamentua jarri eta aginte makila eramango zuen norbait, alegia.

👤 Definitu taldearen jokatzeko modua?

Fisikoki egoerarik onenean egon ez arren, defentsa gogorra egiten dugu. Bestalde, baloiaren nahiz jokalarien etengabeko mugimenduetan oinarritzen da gure jokoa, eraso estatikorako fundamentu gehiegirik ez baitugu, oraingoz.

👤 Iaz azkenaurrekoak eta aurten Ligako txapelkunorde?

Jokalariak ezagutzen nituen eta Sanloko zuzendaritzari esan nion lehen gauza, igoera lortzeko moduko taldea gurea izan zen. Guran gehiegi sinesten ez zuten arren buelta eman diogu egoerari. Talderik zalapartatsuenaz izateak, partiduen ordaintzen baikenuen multa bat behar beste jokalaria ez aurkezteagatik, multa bakar bat ez jasotze- eta gol gutxien jaso dituen taldea izatera pasa gara. Taldea zoriondu nahi nuke egindako denboraldiagatik eta hartu duten konpromisoagatik. Eskerrak ere eman nahi dizkiet une oso gozoak bizi dizkidatelako.

👤 Hurrengo urtean maila bat gorago. Nola ikusten duzu?

Gaitasun handiko taldea daukagu.

Aurtengoa baino aurrendenboraldi hobea eginez gero, mantentzea gutxienez lortuko dugu, baina lehen lau postuetan sailkatzea espero dut nik.

👤 Zergatik sortu zen senior mailako bigarren taldea?

Pena ematen zuelako jarraitzea nahi zuten 18 jokalaria kalean lagatzeak, aurrekontua osatzeko diru piska bat gehiago ez lortzearen.

👤 Kopa Txapelketan ari zarete?

Bai, Kopa sari gisa hartu dugu, helburua mailaz igotzea baitzen. Gutxiago jokatu duten jokalarientzat aukera bat ere bada. Zazpi taldeko bi talde osatu dira eta lehen biek elkarren aurka jokatuko dituzte finalaurrekoak. Momentuz hiru partidatik bi irabazi ditugu.

👤 Jokalari ala entrenatzaile moduan gusturago?

Belauna apurtu nuelako laga behar izan nuen eskubaloia eta entrenatzen akabatzen dut arra. Konpromiso asko hartzen dut horrelako gauzetan eta nire izakerak laguntzen duela uste dut. Teknikoki gabezia asko eta entrenatzaile titulorik ere ez dut, baina jokalaririk motiba daitezen xexatzen eta zirikatzen abila naizela uste dut, eta horretan saiatzen naiz. Eskubaloi taldeetan beti bi zoro daudela esaten da, atezaina eta entrenatzailea; ez zaie arrazoirik falta! Izan ere, kirol oso fisikoa eta beroa da, eta horrenbeste kontaktarekin sua piztea erreza da.

«Jokalariak motibatuzko xexatzea eta zirikatzea gustatzen zait»

MINTXETAKO IGERILEKUKO OBRAK

Hasi dira igerilekuko aldagela berriak eraikitzen

Mintxetako igerilekuko aldagela berriak eraikitzeko "Construcciones Aikia" enpresak hiru hilabeteko epea izango du. Igerilekuen proiektuaren azken faseari dagozkion lanak bukatzeko 728.885 euroko aurrekontua aurkeztu zuen enpresak. Lanak jadanik hasita dauden arren, denboraldi hasierarako (ekainak 15 inguruan) ozta-ozta bukatuta egotea espero dute.

Eraikin berriak 403,7m2ko azalera erabilgarria izango du eta hiru gune bereiziko dira. Lehen guneak, ezkaratza, bi bainugela (gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat) eta hiru biltegi txiki izango ditu. Bigarren gunean, aldagelak egingo dituzte, tartean gutxitu fisikoentzat egokitutakoak. Azken gunean, takilak eta dutxak jarriko dituzte. Guztira, 22 dutxa, 24 komun eta 18 konketa izango dituzte aldagela berriek, hauetatik hamabi elbarrituentzat egokitutakoak izanik.



Mintxetako taberna

Bestalde, Udal Kirol Patronatuak Mintxetako taberna kudeatzeko interesa dutenek apirilaren 21a baino lehenago aurkeztu beharko dituztela proposamenak jakinarazi nahi du. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian (telef: 943 74 44 15).

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Gernika **3** - Haundi **2** (3. maila)
 S. Tomas Lizeoa **1** - Elgoibar **4** (1. erreg.)
 Elgoibar **2** - Zugatzarte **2** (Jub.)
 Elgoibar **3** - Zumaiako **0** (Kad.)
 Tolosa **0** - Elgoibar **2** (Inf. A)
 Real Union **5** - Elgoibar **1** (Inf. B)
 Elgoibar **6** - Zarautz **6** (Aleb.)
 Elgoibar **4** - Urki **0** (Neskak F-8)

PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak **13** - Aretxabaleta **18** (Inf.)
 Behar Zana **22** - Lagunak **18** (Nag. 2. maila)

Debarroko Txapelketa

Eibar **22** - Lagunak **18** (Nag.)
 Aretxabaleta **22** - Lagunak **2** (Nag.)
 Bergara **12** - Lagunak **22** (Jub.)

ESKUBALOAIA

Askartza **26** - Pagoaga Sanlo **22** (Kad. nes.)
 Askartza **23** - Cometel Sanlo **13** (Jub. nes.)
 Bergara **35** - Tecnomeca Sanlo **29** (Kad. mut.)
 Pneumax sanlo **20** - Urola **31** (Jub. mut.)
 Basauri **15** - Sanlo **28** (Sen. nes.)
 Arrasate **24** - ANIT Sanlo **26** (Sen. mut.)
 Bergara **17** - Tecnifuelle **26** (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 16

9:30 Elgoibar - Anaitasuna (Inf. A)

13:30 Elgoibar - Urki (Neskak)

17:00 Haundi - A. Ondarroa (3. maila)

Domekia, 17

10:30 Elgoibar - Urola (Aleb.)

12:00 Elgoibar - Beasain (Inf. B)

17:00 Elgoibar - Hernani (1. erreg.)

ESKU PILOTA, Ikastolan

Udaberri Txapelketa

Barixakua, 15

21:45 Lagunak - Eibar (Kad.)

22:30 Lagunak - Eibar (Jub.)

Martitzena, 19

20:00 Lagunak - Olalde (Nag.)

20:30 Lagunak - Aretxabaleta (Nag.)

ESKUBALOAIA Kiroldegian

Zapatua, 16

16:00 Tecnifuelle - Pilar (Sen. mut.)

17:30 Tecnomeca Sanlo - Eguia (Kad mut.)



Elgoibar Ikastolako neska-mutilak txapeldunorde

Joan zen larunbatean, apirilak 9, X. Pilota Topaketan finalak jokatu ziren Beasaingo polikiroldegian. Zonalde bakoitzeko txapeldunak bildu ziren bertan, hogeitakoko neska-mutilak, alegia. Lehiaketa honek, besteak beste, ezaugarri berezi bat du; eskola bakoitzeko 7 neska eta 7 mutilak parte

hartzen dutela eta taldeko lanaren arabera puntuatzen dela. Finala jokatu ondoren Elgoibar Ikastolako neska-mutilak, Itziar Ulazia entrenatzailearen gidaritzapean, bigarren postuan sailkatu ziren Zaldibiakoaren ondoren, eta txapela Elgoibarrera ekartzeko aukera izan zuten.

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Zumaiko enpresak proiektzio zinematografikoan arduraduna behar du. Erref. 162005003083
- Arrasateko enpresak delineaizio irakaslea behar du. Erref. 162005003138
- Elgoibarko enpresak zenbakizko kontroladun makinarako langilea behar du. Erref. 162005003145
- Sorraluzeko enpresak inkestatazile behar du. Erref. 162005002746
- Arrasateko enpresak garbitzailea behar du. Erref. 162005003361
- Azpeitiko enpresak enkofratzailea behar du. Erref. 162005003371
- Azpeitiko enpresak arkitekto tekniko behar du. Erref. 162005003360
- Azpeitiko enpresak pintorea behar ditu. Erref. 162005002582
- Azpeitiko enpresak fresatzeko makinarako langilea behar du. Erref. 162005003266
- Bergarako enpresak soldadorea behar du. Erref. 162005003192
- Arrasateko enpresak irakaslea behar du. Erref. 162005003141
- Arrasateko enpresak dependientea behar du. Erref. 162005003169
- Gipuzkoako enpresak erizaina behar du. Erref. 162005001933
- Gipuzkoako enpresak klinikako laguntzailea behar du. Erref. 162005003455

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauei batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Soldadorea lanerako prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ 943 53 17 45 (19:00-23:00)
- † Emakumea gaixok zaintzeko prest. Gauzez edo goizez. Esperientziarekin. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)
- † Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ 679 23 19 50
- † Zaintzaileak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko, erresistentzian edo etxe partikularretan. 10 urteko esperientzia eta infomeak. ☎ 685 729 790
- † Mutil gaztea lanerako prest: garbiketara lanak, sukaldetan, igeltsaritza... ☎ 646 23 51 95 (Juan Carlos)
- † Mutila lanerako prest. ☎ 610 61 20 43
- † Portalak garbitzeko prest. ☎ 670 77 86 55
- † Propaganda banatzeko prest gaude. ☎ 679 29 76 81 (Mari)
- † 17 urteko neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 670 77 86 55 (Itsaso)
- † Goi Mailako Administrazio eta Komertziala den neska euskalduna enpresa batean lan egiteko prest. ☎ 943 74 27 78/616 20 36 88

ESKAINITZA

- † Abuzturako emakumea behar da emakume nagusi bat zaintzeko. Eskarmentua eta euskara ulertzea eskatzen da. ☎ 943 74 21 53 (Ramon. 20:00-22:00)
- † Eibarko taberna baterako kamarero euskalduna behar da. ☎ 943 70 19 95 (Rakel)
- † Sukalderako laguntzailea behar da. ☎ 943 12 12 62

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, igogailua. ☎ 677 780 680
- † Etxea salgai Lekeition. 80m². Erdialdean, dena kanpora. Bizitzera sartzeko prest. 3 logela, 2. pisua, 2 sarrera (1 independentea). ☎ 645 73 00 82
- † Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldia, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42
- † Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena berriua. ☎ 943 71 18 83 (Ignacio)
- † Etxe berria salgai Sorraluzen. Komunak eta sukaldia amueblatuta. Garajea, entreplanta, txokoa. ☎ 615 77 99 20
- † Buhardilla salgai San Frantzisko kalean. ☎ 639 01 77 52
- † Etxea salgai Basarten. 75m² Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldia, garajea. ☎ 652 70 99 15
- † Etxea salgai Mendaron. Herriko Enparantzan. Sukaldia, egongela, 2 komun, 3 logela, trasteroa. ☎ 676 81 46 97
- † Etxea salgai Elgoibarren. Amueblatuta, berriua, igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. ☎ 645 73 20 90

ALOKAIRUA

- † Logelak alokatzen dira. ☎ 615 00 83 46
- † Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ 699 60 91 90
- † Pertsona euskalduna behar da pisua osatzeko. ☎ 679 866 923
- † Logela alokatzen da. ☎ 943741881
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ 964 49 10 22
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ 964 49 10 22

[LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ 669 03 89 57

[GARAJEAK]

- † Garaje itxia alokatzen da. Berria. Sarrera Plaza Txikitik. ☎ 943 74 02 68
- † Garaje txikia, maraduna alokatzen da Pedro Muguruzan. Merke. ☎ 943 74 01 13
- † Garajea alokatzen da Leku Ederren, 3. solairuan. ☎ 943 74 20 34/639 35 33 31
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m². ☎ 646 50 28 66 (arratsaldez)
- † Arregitorren garajea salgai. (10 zenbakia) ☎ 679 83 04 38

[PARTIKULARRAK]

- † Ingeles irakaslea behar da. First maila. ☎ 636 44 55 43
- † ESO 4. mailako klase partikularrak emango dituen norbait behar dut. ☎ 677 157 117

[SALEROSKETAK]

- † Laminazko somierra salgai. 90zm. ☎ 661 22 51 49
- † Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua, pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ 669 03 89 57
- † Karro-kanping "comanche" salgai. Ekonomikoa. ☎ 615 72 64 30/943 08 00 81
- † 2. eskuko piragua erositako nuke ibaian eta itsasoan ibiltzeko. ☎ 696 09 33 79
- † Bikitzeko kotxe silla salgai INGLE-SINA markakoa. (Silla, Grupo O, sakuak, burbujak, etab.) ☎ 636 129 543

[BESTELAKOAK]

- † Asteazken santu egunean diru kopuru bat aurkitu nuen kalean. ☎ 943 74 32 70

[ZORIONAK]



‡ Printzesa aurpegia, sorgin iribarrea, honakoa da gure neska bihurria. Zorionak eta muxu pottolo-pottoloa zure 5. urtebetetzean.



‡ Ikastolako laguntxoan partez, zure lehen urtean egun zoriontsu bat izan dezazula opa dizugu.



‡ Zure bigarren urtebetetze egunean oso ondo igaroko dugulako, zorionak ikastolako laguntxoan partez.



‡ Zorionak **Zooropa** zure lagunaren partez.



‡ Zorionak **Ainhoa** eta **amamari** hilaren 7an urteak egin zenituztelako. Guzfiton eta bereziki, losu lehengusuaren partez.



‡ Zorionak **Aner Telleria** zure 3. urtebetetzean. Gurasoen eta arreba Ayalaren partez. Aupa Erealak!



‡ Zorionak **Aitor Altzerreka Odriozola** bihar, hilak 16, urtebete egingo duzulako. Gurasoen, Olatz arreba eta Asier eta Unai lehengusuen partez.



‡ Zorionak **Juli** hilaren 12an urteak egin zenituelako. Familiako guztien partez, ondo segi.



‡ Zorionak **Miren** igandean 10 urte beteko dituzulako, etxekoen, eta batez ere, Maiteren partez. Oso ondo pasa eguna.



‡ Zorionak **Mikel Astigarraga** apirilaren 16an 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



‡ Zorionak **Unai** hilaren 13an 4 urte bete zenituelako. Etxekoen eta arreba Ainhoaren partez.



‡ Zorionak **Paxolol** ondo ibili gaur, zure lehenengo urtebetetzean. Gurasoen, izeba-osaba eta familiako guztien partez.



‡ Zorionak **Aitana Printzesa** hilaren 13an 6 urte egin zenituelako. Familia, osaba-izeba, ahizpa Iria eta lehengusu Iraitz eta Enekoren partez.




‡ Zorionak **Koldo!** Ondo pasatu al zenuen zure urtebetetze eguna Pokemonekin? Muxu handi bat Pello, aita eta amaren partez.



‡ Zorionak **Jokin** hilaren 13an 5 urte bete zenituelako. Ana eta familiakoan partez.



‡ Zorionak **Ion** hilaren 17an 4 urte egingo dituzulako. Anaren partez, asko maite duelako.



‡ Zorionak **Iker Ofederra** hilaren 12an 13 urte egin zenituelako. Gurasoen, Maiteren eta lehengusuen partez.



‡ Zorionak **Eneko** hilaren 12an 7 urte egin zenituelako. Familiakoan eta anaiaren partez.



‡ Zorionak **Jokin** hilaren 13an 5 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki anaia Sergioren partez.



‡ Zorionak **Nagore Gonzalez** apirilaren 13an 3 urte egin zenituelako. Gurasoen eta bereziki, Lorearen partez.



‡ Zorionak **Mikel** hilaren 14an 5 urte egin zenituelako. Gurasoen eta etxekoen partez muxu handi bat eta ondo pasa!



[OKINDEGIA]



17 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
15	Ettxeberria (Errosario)	Ettxeberria	IBAÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
16	Bidasolo	Ibañez	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
17	Ibañez	Ibañez	
18	Bidasolo	Bidasolo	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
19	Ettxeberria (Santa Ana)	Ettxeberria	
20	Fernandez	Fernandez	
21	Yudego	Yudego	
22	Zabaleta	Zabaleta	



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekarria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Konsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEA	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Hazierna	943 74 44 14	IKASTETXEA	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HII (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udaltzaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		• Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
		Ikastola	943 74 44 41
		Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
GARRAIOAK			
Eusko Trenbideak	943 74 04 42		
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[15 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:30 KONTZERTUA

Artista: "DJ amsia"
Kultur Etxeko sotoan
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: Sinuose

[16 ZAPATUA]

16:00 LEHEN LAGUNTZEN

IKASTAROA

Aubixa baserrian

SINOPSISIAK

«Hotel Rwanda»



[17 DOMEKIA]

9:00 MENDI IRTEERA

Nora: Sesiarte mendira (Izarraitz)
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Herri Eskolako Mendi Taldea

9:30 MENDI IRTEERA

Nora: Izaspi (967 m.) Zumarragatik
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

10:00 BARRETERAPIA

JARDUNALDIA

Aubixa baserrian
Informazio gehiago: 943 74 1715

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Zuzendaria: Txomin Mugica
Egitaraua: "L'entra de la Murta" (S. Giner), "La Giza Ladra" (G. Rossini), "Santa Cruz" (Jef Penders), "La Venta de los Gatos" (J. Serrano), "Granada" (A. Lara).

[18 ASTELEHENA]

17:00 XI. IDAZLAN ETA MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Udal Liburutegiko atarian
Sariak banatzen: Joseba Etxeberria
Antolatzailea: Udal Liburutegia

[20 EGUAZTENA]

18:30 MULTIABENTURA EGUNPASAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Irteera: Apirilaren 23 (zapatua)
Norentzat: LH 4,5 eta 6
Prezioa: 20 euro
Izenematea: Elgoibarko Izarran (Telf: 943 74 16 26)

[21 EGUENA]

18:30 TXURI URDINERA IRTEERARA IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA

Irteera: Apirilaren 23an (zapatua)
Norentzat: LH 1,2 eta 3
Prezioa: 10 euro
Izenematea: Elgoibarko Izarran

[22 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Hotel Rwanda»

15, barixakua: 22:15
16, zapatua: 19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 22:15

«George eta Herensugea»

17, domekia: 16:30

«Balzac y la joven costurera China» (Z.K)

21, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«The ring 2»

15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:30-22:30
17, domekia: 17:00-19:30-22:30
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Habana Blues»

15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:30-22:30
17, domekia: 17:00-19:30-22:30
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

Zuzendaria: Terry George.
Antzezleak: Don Cheadle, Sophie Okonedo, Nick Nolte.

1994, Ruanda. Presidentearen erailketak hutu eta tutsien arteko borroka eta gorrotoa piztuko du, genozidioari hasiera emanez. Paul Rusesabagina (Don Cheadle) hotel bateko nagusi hutua da eta bere emaztea, berriz, tutsia. Emaztea eta honen familia mehatxatuta daude. Hotela ehundaka lagun babesleku bilakatuko da, baina bizirik ateratzeko itxaropen guztiak nazioarteko indarretan jarriak dituzte. Bien bitartean, kazetari batek sarraski guztia filmatuko du.

«Balzac y la joven costurera China» (Z.K.)



Zuzendaria: Dai Sijie.
Antzezleak: Zhou Xun, Chen Kun, Liu Ye.

70. hamarkadako Txinak iraultza kulturalaren menpean jarraitzen du. Luo eta Ma, intelektualen semeak dira eta Tibeteko lurralde galdu batera bidaliko dituzte komunismoaren ideiekin bat datorren heziketa jaso dezaten. Irtsi bezain laster irakasten dieten guztiaren aurka matxinatuko dira. Egun batez, jostun zahar bat eta honen iloba ezagutuko dituzte. Agurearen etxean ustegabeko altxorra aurkituko dute: atzeriko elaberiz (guztiz debekatuak, noski) betetako maleta bat. Konplizitatez beteriko amodio istorioa biziko dute.

Atzera begira



1952. urteko erretratu zahar hau **Txomin Urbietta** mendarorarak laga digu. Kilimon futbol taldea ageri da argazkian. Egun honetan Mutrikun jokatu zuten bertako taldearen aurka. Urte hartan, txapelketako bigarren postuan sailkatu zen Kilimon taldea, eta Goiko izan zen golegile nagusia. Gogoratu dezagun zeintzuk osatzen zuten garai hartan Kilimon taldea.

Zutik, ezkerretik eskumara: **Jose M^a Zabala, Txomin Urbietta, Enrike Zabala, Juan Gurrutxaga, J.L. Goikoetxea, Juan Agustin Esnaola eta J.L. Zubiaurre.**

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Jose M^a Larrea, J.J. Goikoetxea, Juan Larrea eta Santi Zulaika (†).**



ESKERTZA

2005eko apirilaren 8an, 83 urte zituela hil zen *Balentin Jauregi Madinabeitiaren* familiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





BOZKATU

**DEMOKRAZIA
eta BAKEA**



1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itzaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarrizketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



E U Z K O A B E R T Z A L E A K

eusko
alkartasuna



EAJ
PNV

